

ARETXABALETAko HAPO PGOU DE ARETXABALETA

# HASIERAKO ALTERNATIBA IRIZPIDE HELBURU

# PARTAIDETZA TXOSTENA

# ALTERNATIVAS, CRITERIOS Y OBJETIVOS

# INFORME DE PARTICIPACIÓN

2022ko MARTXOA MARZO de 2022

nahi dugun
ATXABALTA

Aretxabaletako
Udala

Dokumentu hau Aretxabaletako Udalarentzat egin da, hurrengo kontratuaren barruan: HAPO idazteko irizpideak eta helburuak onartu arte, Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Herritarrek parte hartzeko programa eta komunikazio-plana gauzatzeko beharrezkoak diren lanak.

Dokumentuaren egileak:

- Jone Belausteguigoitia Garaizar, Lur Studio
- Irati Alonso Erkoreka, Createlli
- Lucía Olavarri Casado, Lur Studio

Este documento se ha realizado para el Ayuntamiento de Aretxabaleta y forma parte de los trabajos necesarios para la ejecución del programa de participación ciudadana (PPC) y el plan de comunicación del Plan General de Ordenación Urbana de Aretxabaleta, hasta la aprobación de criterios y objetivos para redactar el PGOU.

Autoras del documento:

- Jone Belausteguigoitia Garaizar, Lur Studio
- Irati Alonso Erkoreka, Createlli
- Lucía Olavarri Casado, Lur Studio

## EDUKIAK


**1. PARTAIDETZA-PROZESUA LABURPENA ..... 5**

**2. AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA ..... 9**

2.1 ARETXABALETAKO HAPOren LANKETA ..... 9

2.2 LAN-ESPARRUA: INFORMAZIOA, PARTAIDETZA ETA MUGAK ..... 10

**3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN AZALPENA ..... 12**

3.1 HELBURUAK, METODOLOGIA, ERAGILEAK ETA PARTE HARTZEKO MODUAK ..... 12

3.2 KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIO-MATERIALA ..... 18

3.3 PARTAIDETZA-ADIERAZLEAK ..... 21

**4. EMAITZAK ETA HAPO-REN D DENBORALDIAN EGINDAKO EKARPENAK ..... 27**

4.1 01. GAIA: INGURUNE NATURALA ..... 28

4.2 02. GAIA: MUGIKORTASUNA ..... 30

4.3 03. GAIA: ESPAZIO PUBLIKOA ..... 32

4.4 04. GAIA: ETXEBIZITZA ETA HIRI-BERRONERATZEA ..... 34

4.5 05. GAIA: JARDUERA EKONOMIKOA ..... 38

4.6 06. GAIA: EKIPAMENDUAK ..... 40

4.7 07. GAIA: ONDAREA ..... 43

4.8 08. GAIA: JASANGARRITASUNA ETA KLIMA ALDAKETA ..... 45

4.9 09. GAIA: INKLUSIBITATEA ETA OSASUNA ..... 47

CONTENIDOS


**1. RESUMEN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN ..... 5**

**2. ANTECEDENTES Y MARCO DE TRABAJO ..... 9**

2.1 ELABORACIÓN DEL PGOU DE ARETXABALETA ..... 9

2.2 MARCO DE TRABAJO: INFORMACIÓN, PARTICIPACIÓN Y LÍMITES ..... 10

**3. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN ..... 12**

3.1 OBJETIVOS, METODOLOGÍA, AGENTES Y CANALES DE PARTICIPACIÓN ..... 12

3.2 COMUNICACIÓN Y MATERIAL DIVULGATIVO ..... 18

3.3 INDICADORES DE PARTICIPACIÓN ..... 21

**4. RESULTADOS Y APORTACIONES DEL PERIODO D DEL PGOU ..... 27**

4.1 TEMA 01: MEDIO NATURAL ..... 28

4.2 TEMA 02: MOVILIDAD ..... 30

4.3 TEMA 03: ESPACIO PÚBLICO ..... 32

4.4 TEMA 04: VIVIENDA Y REGENERACIÓN URBANA ..... 34

4.5 TEMA 05: ACTIVIDAD ECONÓMICA ..... 38

4.6 TEMA 06: EQUIPAMIENTOS ..... 40

4.7 TEMA 07: PATRIMONIO ..... 43

4.8 TEMA 08: SOSTENIBILIDAD Y CAMBIO CLIMÁTICO ..... 45

4.9 TEMA 09: INCLUSIVIDAD Y SALUD ..... 47

# 1. PARTAIDETZA-PROZESUA LABURPENA

# 1. RESUMEN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN

Dokumentu honek Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren D Denboraldiaren, Aukera, irizpide eta helburu posibleen definizioa., edukiari buruz herritarrek PARTE HARTZEKO PROZESUAREN emaitzak jasotzen ditu. Prozesua bi astez irekita egon zen, 2022ko otsailaren 14tik 27ra.

Este documento recoge los resultados del PROCESO DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA sobre el contenido del PERIODO D, Definición de posibles alternativas, criterios y objetivos, de la elaboración del Plan General de Ordenación Urbana de Aretxabaleta. El proceso estuvo abierto durante 2 semanas, del 14 al 27 de febrero de 2022.

**Aurrekariak eta lan-esparrua**

Udalak 2021ean Aretxabaletarako hirigintza-plan berria hasi zuen. 2021ean B Denboraldia bukatu ondoren, 2021eko abenduan, D Denboraldia, Aukera, irizpide eta helburu posibleen definizioa, urtarrilean hasi zen. Denboraldi horretako parte-hartzea herritar atxabaltar guztiei ireki zitzaien, etorkizuneko HAPOren hurrengo aldian sartu beharreko balizko alternatibak, irizpideak eta helburuak bildu eta kontrastatzeko. Horrela, ekarpen horiek etorkizuneko HAPOren hurrengo Denboraldian sartu ahal izango dira, hau da, HAPOren Aurrerapena eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa idaztean.

Lan-esparrua aurreko aldiko bederatzi gaiak erabiltzea izan zen. Diagnostiko parte-hartzailearen emaitzetatik aurretiazko proposamen batzuk lortu ziren, eta horiek parte hartzera eraman ziren, osatzeko eta zehazteko. Dibulgazio-materiala eta parte hartzeko ekintzak garatu ziren, fase honetako ekarpenak jasotzeko eta plana aberasteko. Azkenik, aipatu beharra dago partaidetza-prozesuaren emaitzak ezin direla lotesleak izan, HAPOren beraren mugak direla eta.

**Antecedentes y marco de trabajo**

El Ayuntamiento comenzó en 2021 el nuevo plan urbanístico para Aretxabaleta. Completado el Periodo B, Diagnóstico, en diciembre de 2021, en enero comenzó el Periodo D de Definición de posibles alternativas, criterios y objetivos. La participación en este periodo se abrió a toda la ciudadanía atxabaltarra para recoger y contrastar las posibles alternativas, criterios y objetivos. Así, estas aportaciones se podrán incorporar en el siguiente periodo del futuro PGOU, la redacción del Avance del PGOU y del Documento Inicial Estratégico.

El marco de trabajo consistió en utilizar los nueve temas del periodo anterior. De los resultados del diagnóstico participativo se obtuvieron una serie de propuestas preliminares, las cuales se llevaron a la participación, con el objeto de completarlas y concretarlas. Se desarrolló material divulgativo y acciones participativas para recoger aportaciones y enriquecer así el plan en este periodo. Por último, cabe mencionar que los resultados de este proceso no son ni pueden ser vinculantes, debido a los diferentes límites del propio PGOU.

**Partaidetza-prozesuaren deskribapena**

Prozesua bi astez irekita egon zen, 2022ko otsailaren 14tik 27ra. Dibulgazio-materiala hurrengoa izan zen: HAPOri buruzko web-orria, prentsa oharra, kartela eta mezuak sare sozialetan, besteak beste.

Parte hartzeko bi bide ireki ziren: parte-hartze digitala, HAPOren webgunearen bidez (www.hapo-aretxabaleta.eus), eta aurrez aurrekoa, herritarrekin egindako parte hartzeko bi saio publikoekin, eta zortzi saio espezifikoekin honako kolektibo hauekin: haurrak eta nerabeak (6), gazteak (Lanbide Eskola) eta udal langileak.

**Descripción del proceso de participación**

El proceso estuvo abierto durante 2 semanas, del 14 al 27 de febrero de 2022. El material divulgativo consistió en: página web del PGOU, nota de prensa, cartel y mensajes en redes sociales, entre otros.

Se abrieron dos canales de participación: la participación digital, a través de la página web del PGOU (www.hapo-aretxabaleta.eus), y la presencial, con dos sesiones participativas públicas con ciudadanía, y ocho sesiones específicas con los siguientes colectivos: infancia y adolescencia (6), juventud (Lanbide Eskola) y personal municipal.

Era berean, banakako galdetegi batzuk bidali zitzaizkien hiru eragile-talderi: auzoei, ikastetxeei eta jarduera ekonomikoei.

Guztira, 399 lagun parte hartu zuten prozesuan. Ia gehienek bide digitaletik. Hiru parte-hartzailetik bik baino apur bat getxiagok galdetegi digitalaren bidez egin zuten ( % 64), eta gainerako herenak aurrez aurreko saioetan. Ia parte-hartzaile guztiak Aretxabaletan bizi dira.

Gainera, otsailaren 1ean lehenengo bilkura egin zen Plangintzako Aholku Batzordearekin. Saio horretan, HAPOren A eta B denboraldiak azaldu ziren, baita D denboraldirako aurreikusitako parte-hartzea ere.

En paralelo, se enviaron una serie de cuestionarios particulares a tres grupos de agentes: los barrios, los centros educativos y las actividades económicas.

Con todo, en el proceso participaron 399 personas. Algo menos de dos de cada tres participantes lo hicieron a través del cuestionario digital (un 64%) y el tercio restante en las diferentes sesiones presenciales. Prácticamente la totalidad de participantes reside en Aretxabaleta.

Además, el 1 de febrero se celebró la primera sesión con el Consejo Asesor de Planeamiento. En esta sesión se explicaron los periodos A y B del PGOU, así como la participación prevista para el periodo D.

**Emaitzak eta ekarpenak**

Diagnostiko parte-hartzailean jasotakoaren antzera, HAPO berrirako bederatzi gaiak lehentasunezkoak badira ere, denboraldi horretan, ekipamenduen gaiak garrantzi berezia hartu zuen, batez ere hezkuntza- eta kirol-arloei dagokienez.

Horren ondoren, espazio publikoa, ingurune naturala, mugikortasuna eta, neurri txikiagoan, gainerako gaiak daude.

**Resultados y aportaciones**

De manera similar a lo recogido en el diagnóstico participado, si bien los nueve son prioritarios para el nuevo PGOU, en este periodo, el tema de equipamientos cobra especial relevancia, sobre todo en cuanto a los educativos y deportivos.

Seguidos de éste, están el espacio público, el medio natural, la movilidad, y, en menor medida, el resto de temas.




Partaidetza, gaika. Participación por temas.

Lehentasunezko proposamenen laburpena, gaika:

- Ekipamenduak (hezkuntzakoak, osasunekoak, kirolekoak, soziokulturalak eta asistentzialak):
  - Lehentasun gehien duen proposamena bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu baterako espazio bat aurreikustea da, kokapen alternatiboekin: Tubos edo Zubikua. Horrela, institutuaren egungo eraikinak udaletxearen erabilera har lezake, Herriko Plazan, eta Udalaren egungo eraikina ekipamendu soziokultural bilakatu.
  - Gainera, kiroldegia handitzeko proposamena sortu da.
- Espazio publikoa:
  - Haurrentzako eta gazteentzako gune estali bat sortzea, kokapen-proposamen desberdinekin.
  - Aretxabaletako hainbat gunetan landaredia handitzea eta dauden plazak hobetzea.
- Ingurune naturala:
  - Urkuluko eremua naturgune gisa zaintzea eta babestea, hainbat proposamenen bidez, besteak beste, interpretazio-zentro bat.
  - Deba ibaiaren ibilgua hobetzea, batez ere mantentze-lanei eta garbiketari dagokienez.
- Mugikortasuna:
  - Oinezkoen mugikortasun seguru eta irisgarriaren alde egitea.
  - Bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzea, bai hiri-bilbean, bai auzo eta mendietarako bideetan.
- Etxebizitza:
  - Tubos eremuan bizitegi-garapen mistoa aurreikustea (merkataritza eta ekipamenduekin), gehienez 5 altuerako eraikinekin (ez 6tik 9ra), eta eremu horretan bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu berri bat kokatzea.
  - Jadanik dauden etxebizitzei dagokienez, etxebizitza hutsen kopurua murriztea.
  - Etxebizitza berriei dagokienez, etxebizitza mota berriak sartzea (babestua, alokairuan, txikiagoa eta handiagoa, komunitatean…).
  - San Martin eremuan, berdegune bat kokatzea.

Resumen de propuestas prioritarias, por temas:

- Equipamientos (educativos, sanitarios, deportivos, socioculturales y asistenciales):
  - La propuesta prioritaria es planificar un espacio para un instituto de secundaria y bachillerato, con alternativas de ubicaciones: Tubos o Zubikua. De esa forma, el espacio actual del instituto podría albergar el uso de ayuntamiento, en Herriko Plaza, dejando el edificio actual del Ayuntamiento para equipamiento sociocultural.
  - Además, surge la propuesta de ampliación del polideportivo.
- Espacio público:
  - Crear un espacio cubierto para la infancia, así como para la juventud, con diferentes propuestas de ubicaciones.
  - Incrementar la vegetación en varios espacios de Aretxabaleta, y mejorar las plazas existentes.
- Medio natural:
  - Preservar y proteger la zona de Urkulu como espacio natural, con diferentes propuestas, incluido un centro de interpretación.
  - Mejorar el cauce del río Deba, principalmente en cuanto a mantenimiento y limpieza.
- Movilidad:
  - Apostar por la movilidad peatonal segura y accesible.
  - Mejorar la movilidad en bicicleta tanto en la trama urbana como en los caminos a los barrios y montes.
- Vivienda:
  - En la zona de Tubos prever un desarrollo residencial mixto (con comercio y equipamientos), con edificios de un máximo de 5 alturas (no de 6 a 9), ubicando en esta zona un nuevo instituto de secundaria y bachillerato.
  - Entre la vivienda existente, reducir el número de viviendas vacías.
  - En la nueva vivienda, introducir nuevos tipos de vivienda (protegida, en alquiler, de menor y de mayor tamaño, en comunidad…).
  - En el ámbito de San Martín, añadir un espacio verde.

- Jarduera ekonomikoa:
  - Hurbileko merkataritza eta zerbitzuak sustatzea, tokiko merkataritzaren aniztasuna sustatuz eta ekintzailetza erraztuz.
  - Zubikua inguruan parke bat kokatzea eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu bat integratzea.

- Jasangarritasuna eta klima-aldaketa:.
  - Azpiegitura berdeak sortzea hirigunean. Adibidez, hainbat kokalekuetan hiri-baratzeak kokatuz, eta zuhaitzen kopurua handituz.
  - Eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzea, antzinatasun handieneko eraikinen birgaitzea bultzatuz.

- Inklusibitatea eta osasuna:
  - Gaueko segurtasuna hobetzea, batez ere espazio publikoaren argiztapenaren bidez.
  - Hiri inklusiboaren, trinkoaren eta erabilera-nahasketaren aldeko apustua egitea. Zehazki, belaunaldien arteko jarduerak hartuko dituen gizarte-zentro bat aurreikustea, ikastetxe desberdinetako haurrak eta gazteak harremanetan jartzeko espazioak aurreikustea.
  - Osasuna sustatzea aisialdirako berdeguneen eta naturguneen bidez.

- Ondarea:
  - Hiriguneko eraikinak edota horietako elementuren bat babestea, kontserbazioaren eta birgaitzearen bitartez, hala nola Udala eta Herriko Plaza.
  - Udala Herriko Plazara eramatea (egungo institutuaren kokagunera), eta Udalaren egungo eraikina ekipamendu soziokultural bilakatu.

- Actividad económica:
  - Impulsar el comercio y los servicios de proximidad, fomentando la diversidad del comercio local y facilitando el emprendimiento.
  - En la zona de Zubikua, introducir un parque e integrar un instituto de secundaria y bachillerato.

- Sostenibilidad y Cambio Climático:
  - Crear infraestructuras verdes en la zona urbana. Por ejemplo, mediante huertos urbanos en varias ubicaciones, así como aumentando el arbolado.
  - Mejorar la eficiencia energética de los edificios, impulsando la rehabilitación de los edificios de mayor antigüedad.

- Inclusividad y salud:
  - Mejorar la seguridad nocturna principalmente a través de la iluminación del espacio público.
  - Apostar por un modelo de ciudad inclusiva, compacta y con mezcla de usos. En concreto, habilitar un centro social que albergue actividades intergeneracionales, y crear espacios de encuentro para poner en relación a la infancia y juventud de los diferentes centros educativos.
  - Impulsar la salud a través de espacios verdes y naturales para el ocio.

- Patrimonio:
  - Proteger edificios en la zona urbana y/o algunos de sus elementos, conservando y rehabilitando algunos en concreto, como el del Ayuntamiento y los de la Herriko Plaza.
  - Trasladar el Ayuntamiento a la Herriko Plaza (al espacio del instituto actual), de manera que el antiguo Ayuntamiento pueda tener un uso de equipamiento sociocultural.

# 2. AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA

## 2.1 ARETXABALETAKO HAPOren LANKETA

Egun Aretxabaletak ez du HAPOrik, Arau Subsidiarioak baizik. HAPO idaztea, legez nahitaezkoa den eta, hainbat fase dituen prozesu luze eta konplexu bat da, behin betiko onespenera iritsi arte.

Gauzak horrela, Udalak 2021ean Aretxabaletarako hirigintza-plan berria hasi zuen. 2021ean B Denboraldia bukatu ondoren, 2021eko abenduan, D Denboraldia, Aukera, irizpide eta helburu posibleen definizioa, urtarrilean hasi zen.

Denboraldi horretako parte-hartzea berriro ireki zitzaien herritar atxabaltar guztiei, HAPOren Aurrerapenaren eta Hasierako Dokumentu Estrategikoaren idazketa etorkizuneko HAPOren hurrengo aldian sartu ahal izateko alternatiba, irizpide eta helburu posibleak bildu eta kontrastatzeko. Txosten hau alternatibak, irizpideak eta helburu posibleak definitzeko D Denboraldian egin daitezkeen proposamenei dagokie.

# 2. ANTECEDENTES Y MARCO DE TRABAJO

## 2.1 ELABORACIÓN DEL PGOU DE ARETXABALETA

Aretxabaleta actualmente no cuenta con el PGOU, sino con Normas Subsidiarias. La elaboración del PGOU, obligatoria por ley, consiste en un proceso largo y complejo, con varias fases hasta su aprobación definitiva.

Así las cosas, el Ayuntamiento comenzó en 2021 el nuevo plan urbanístico para Aretxabaleta. Completado el Periodo B, Diagnóstico, en diciembre de 2021, en enero comenzó el Periodo D de Definición de posibles alternativas, criterios y objetivos.

La participación en este periodo se abrió de nuevo a toda la ciudadanía atxabaltarra para recoger y contrastar para recoger y contrastar las posibles alternativas, criterios y objetivos para poderlas incorporar en el siguiente periodo del futuro PGOU, la redacción del Avance del PGOU y del Documento Inicial Estratégico. El presente informe corresponde a las propuestas posibles en el marco del Periodo D de Definición de posibles alternativas, criterios y objetivos.




Aretxabaletako HAPOren lanketa. Elaboración del PGOU de Aretxabaleta.

## 2.2 LAN-ESPARRUA: INFORMAZIOA, PARTAIDETZA ETA MUGAK

Lan-esparrua aurreko aldiko bederatzi gaiak erabiltzea izan zen. Diagnostiko parte-hartzailearen emaitzetatik aurretiazko proposamen batzuk lortu ziren, eta horiek parte hartzera eraman ziren, osatzeko eta zehazteko.

Dibulgazio-materiala garatu zen baita parte hartzeko ekintzak ere, fase honetako ekarpenak jasotzeko eta plana aberasteko. Azkenik, aipatu beharra dago partaidetza-prozesuaren emaitzak ezin direla lotesleak izan, HAPOren beraren mugak direla eta.

**Aretxabaletako HAPOn parte hartzeko 9 gaiak**
Herritarrek erraz uler zezaten, HAPOren edukiek aurreko aldian landutako bederatzi gairen egitura mantentzen dute.: lehenengo hirurak espazioei buruzkoak dira (ingurune naturala, mugikortasuna eta espazio publikoa), bigarrengo hirurak eraikinei buruzkoak (etxebizitza eta hiri-berroneratzea, jarduera ekonomikoa eta ekipamenduak) eta azkenengo hirurak zeharkako gaiei buruzkoak (ondarea; jasangarritasuna eta klima-aldaketa; eta inklusibitatea eta osasuna).

## 2.2 MARCO DE TRABAJO: INFORMACIÓN, PARTICIPACIÓN Y LÍMITES

El marco de trabajo consistió en utilizar los nueve temas del periodo anterior. De los resultados del diagnóstico participativo se obtuvieron una serie de propuestas preliminares, las cuales se llevaron a la participación, con el objeto de completarlas y concretarlas.

Se desarrolló material divulgativo y acciones participativas para recoger aportaciones y enriquecer así el plan en esta fase. Por último, cabe mencionar que los resultados de este proceso no son ni pueden ser vinculantes, debido a los diferentes límites del propio PGOU.

**9 temas para la participación en el PGOU**
Para facilitar la comprensión de la ciudadanía en aras de una participación informada, los contenidos/ del PGOU mantienen la estructura de nueve temas trabajada en el periodo anterior. Los tres primeros se refieren a los espacios (medio natural, movilidad y espacio público); los tres segundos, a las edificaciones (vivienda y regeneración urbana, actividad económica y equipamientos) y los tres últimos, a temas transversales (patrimonio; sostenibilidad y cambio climático; e inclusividad y salud).



**Partaidetza-prozesuaren mugak**

Udal-tresna juridiko bat izanda ere, HAPOk udalerriaz gaindiko administrazioetatik datozen eta aintzat hartu behar dituzten hainbat baldintza ditu.

Beraz, Aretxabaletako HAPOk legeri sektoriala jaso beharko du, bai eta Estatutik eta Eusko Jaurlaritzatik datozen aplikazio zuzeneko arauak ere (hirigintza-estandarrak, adibidez), esaterako hurrengoei dagozkienak: ura, errepideak, lurzoru kutsatuak, ondarea edo telekomunikazioak. Zehazki, etxebizitzaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) bitartez arautzen du HAPOn antola daitezkeen etxebizitza berrien kopurua.

Gainera, zeharkako zenbait ikasgai biltzen ditu, hala nola ingurumena, jasangarritasuna eta klima-aldaketa, ikuspegi inklusiboa, hizkuntza-inpaktua, osasuna, inpaktu akustikoa...

Horregatik guztiagatik, herritarren parte-hartzearen ekarpenak gorabehera, edukiak kontrastatuz eta osatuz, eta, azken batean, plan berria aberastuz, emaitzak ez dira lotesleak, eta ezin dira lotesleak izan, arestian deskribatutako mugak direla eta.

Azkenik, beharrezko faktore sozioekonomikoa aipatu behar da HAPOn aurreikusitakoak aurrera eraman ahal izateko. Esaterako, gerta liteke HAPO batek etxebizitza edo ekonomia jarduerarako espazio berriak aurreikustea eta, ordea, horiek planaren indarraldian ez garatzea. Bi kasuetan, egoera ekonomikoagatik eta planarekin zer ikusirik ez duten faktoreen ondorioz.

**Límites del proceso participativo**

A pesar de ser una herramienta jurídica municipal, el PGOU cuentan con numerosos condicionantes que provienen de administraciones supra-municipales y que debe integrar.

Así, el PGOU de Aretxabaleta debe incorporar legislación sectorial, así como normas de aplicación directa (estándares urbanísticos, por ejemplo) que provienen del Estado y de Gobierno Vasco, como por ejemplo la relativa a: aguas, carreteras, suelos contaminados, patrimonio o telecomunicaciones. Concretamente en materia de vivienda, Gobierno Vasco regula mediante las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) el número de nuevas viviendas que se pueden planificar en el PGOU.

Además, integra determinadas materias transversales, como la medioambiental, la sostenibilidad y el cambio climático, la perspectiva inclusiva, el impacto lingüístico, la salud, el impacto acústico…

Por todo ello, a pesar de las diversas aportaciones de la participación ciudadana, contrastando y completando los contenidos, y en definitiva enriqueciendo el nuevo plan, los resultados no son ni pueden ser vinculantes, dadas las limitaciones descritas anteriormente.

Por último, cabe mencionar el factor socioeconómico necesario para que lo previsto en el PGOU se pueda llevar a cabo. Por ejemplo, un PGOU puede prever nuevas viviendas o nuevos espacios para actividades económicas y, sin embargo, cabe la posibilidad de que éstos no se desarrollen en el plazo de vigencia del plan. En ambos casos, debido a la coyuntura económica y otros factores ajenos al plan.

# 3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN AZALPENA

## 3.1 HELBURUAK, METODOLOGIA, ERAGILEAK ETA PARTE HARTZEKO MODUAK

### 3.1.1 Partaidetza-prozesuaren helburuak

Alternatiba, irizpide eta helburu posibleen definizioa izeneko D aldi honetan parte hartzeak honako helburu hau du:

Diagnostikoaren emaitzetatik ateratako alternatibak, irizpideak eta helburuak herritarrekin lantzea. Atariko proposamen batzuei dagokienez, zer eta non kontrastatu eta zehaztea, eta, hala badagokio, berriak gehitzea.

### 3.1.2 Parte hartzeko metodologia

*Prestakuntza, informazioa + partaidetza, ebaluazioa*

Adierazitako helburuak lortzeko, metodologiak segidako hiru etapa ditu: prestatzea, informatzea + parte hartzea eta ebaluatzea.

Prestaketa-etapan, gonbidatu beharreko eragileen mapa eta aurreko aldian prozesua artikulatu zuten gaiak erabili ziren, bai eta dibulgazio-, komunikazio- eta partaidetza-material berria ere.

Informazio- eta partaidetza-etapa 2022ko otsailaren 14an hasi zen. Dibulgazio-materiala hurrengoa zen: HAPOri buruzko web-orria (www.hapo-aretxabaleta.eus ), prentsa oharra, kartela eta mezuak sare sozialetan, besteak beste. HAPOren idazketa eta parte hartzeko epeei buruzko erakusketa mantendu zen Arkupe udal zentroan.

Parte hartzeko bi bide ireki ziren: parte-hartze digitala, HAPOren webgunearen bidez (www.hapo-aretxabaleta.eus ), eta aurrez aurrekoa, herritarrekin egindako parte hartzeko bi saio publikoekin, eta zortzi saio espezifikoekin honako kolektibo hauekin: haurrak eta nerabeak (sei saio), gazteak (Lanbide Eskolan) eta udal langileak.

# 3. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN

## 3.1 OBJETIVOS, METODOLOGÍA, AGENTES Y CANALES DE PARTICIPACIÓN

### 3.1.1 Objetivos del proceso de participación

La participación en este periodo D de Definición de posibles alternativas, criterios y objetivos persigue el siguiente objetivo:

Trabajar con la ciudadanía las posibles alternativas, criterios y objetivos extraídos de los resultados del diagnóstico. Sobre una serie de propuestas preliminares, contrastar y concretar qué y dónde, y, en su caso, añadir nuevas.

### 3.1.2 Metodología de participación

*Preparación, información + participación, evaluación*

Para alcanzar los objetivos planteados, la metodología cuenta con tres etapas consecutivas: preparación, información + participación, y evaluación.

En la etapa de preparación se utilizaron el mapa de agentes a invitar y los temas que articularon el proceso en el periodo anterior, así como el nuevo material divulgativo y de comunicación y participación.

La etapa de información y participación arrancó el 14 de febrero de 2022. El material divulgativo consistió en: página web del PGOU (www.hapo-aretxabaleta.eus ), nota de prensa, cartel y mensajes en redes sociales, entre otros. La exposición sobre el proceso de redacción del PGOU y los momentos de participación se mantuvo en el centro municipal Arkupe.

Se abrieron dos canales de participación: la participación digital, a través de la página web del PGOU (www.hapo-aretxabaleta.eus ), y la presencial, con dos sesiones participativas públicas con ciudadanía, y ocho sesiones específicas con los siguientes colectivos: infancia y adolescencia

Era berean, banakako galdetegi batzuk bidali zitzaizkien hiru eragile-talderi: auzoei, ikastetxeei eta jarduera ekonomikoei.

- Ikastetxeen galdetegia: 7 ikastetxetako zuzendariei eta 5 guraso elkarteri bidali zaitzaien.
- Auzoetako galdetegia: 8 auzotako alkateei bidali zitzaien.
- 1.go sektoreko galdetegia: 18 ustiategitara bidali zen.
- 2. sektoreko galdetegia: 52 enpresetera bidali zen.
- 3 sektoreko galdetegia: 93 komertziotara bidali zen.

Azkenik, ebaluazio-etapan jasotako ekarpenak bildu ziren eta txosten hau idatzi zen. Txosten honen emaitzak HAPOren hurrengo denboraldiari lagungarri izatea espero da, E Denboraldia HAPOren Aurrerapena eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa idaztea.

(seis sesiones), juventud (Lanbide Eskola) y personal municipal.

En paralelo, se enviaron una serie de cuestionarios particulares a tres grupos de agentes: los barrios, los centros educativos y las actividades económicas.

- Cuestionario de centros educativos: enviado a la dirección de 7 centros y a 5 AMPAS.
- Cuestionario de barrios: enviado a los alcaldes de 8 barrios.
- Cuestionario 1er Sector 1: enviado a 18 explotaciones.
- Cuestionario 2º Sector: se envió a 52 empresas.
- Cuestionario 3er Sector: enviado a 93 comercios.

Por último, la etapa de evaluación consistió en la síntesis de las aportaciones recogidas y la redacción del presente informe, cuyos resultados se espera contribuyan al siguiente periodo del PGOU: Periodo E Redacción del Avance del PGOU y del Documento Inicial Estratégico.

### 3.1.3 Eragile-taldeak

Parte hartzeko prozesua Aretxabaletatar guztiei irekita egon zen. Parte hartzeko bide desberdinen bitartez, prozesuak hurrengo eragile-taldeen ekarpenak bildu zituen:

- Aretxabaletan bizi direnak
- Herriko elkarteak
- Aretxabaletan lan edo ikasketak egiten dituztenak
- Aretxabaleta bisitatzen dutenak
- Udal-teknikariak
- Udal-ordezkariak

### 3.1.3 Agentes participantes

El proceso participativo estuvo abierto a toda la ciudadanía de Aretxabaleta. A través de los diferentes canales de participación, el proceso recogió aportaciones de los siguientes grupos de agentes:

- Personas vecinas de Aretxabaleta
- Asociaciones locales
- Personas que trabajan en Aretxabaleta
- Personas que visitan Aretxabaleta
- Personal técnico municipal
- Personas representantes municipales

### 3.1.4 Parte hartzeko moduak

Ahalik eta herritar gehienek eta desberdinek parte har zezaten, prozesuak modu desberdinak bateratu zituen.

Gainera, otsailaren 1ean lehenengo bilkura egin zen **Plangintzako Aholku Batzordearekin**. Saio horretan, HAPOren A eta B denboraldiak azaldu ziren, baita D denboraldirako aurreikusitako parte-hartzea ere.

Hurrengo taulan, gaitutako moduak agertzen dira.

### 3.1.4 Canales de participación

Para facilitar la participación de la mayor cantidad y diversidad de personas, el proceso combinó diferentes canales.

Además, el 1 de febrero se celebró la primera sesión con el **Consejo Asesor de Planeamiento**. En esta sesión se explicaron los periodos A y B del PGOU, así como la participación prevista para el periodo D.

La siguiente tabla muestra los canales habilitados.

| PARTE HARTZEKO MODUAK |
|---|
| **Partaidetza digitala**<br><br>Otsailak 14 - 27<br>www.hapo-aretxabaleta.eus |
| **Parte hartzeko saio publikoak**<br><br>Otsailak 22, Bilkura orokorra, Arkupen<br><br>Otsailak 24, Ekipamenduen eta espazio publikoaren saioa, Arkupen |
| **Saio espezifikoak elkarte / kolektiboekin (2 saio)**<br><br>• Gazteak, Lanbide Eskola<br>• Udal langileak |
| **Haur eta nerabeekin partaidetza (6 saio)**<br><br>• Kurtzebarri: LH 1 - 6<br>• Kurtzebarri: DBH 1-4<br>• Almen Ikastola: LH 1,2<br>• Almen Ikastola: LH 3, 4, 5<br>• Almen Ikastola: LH6, DBH 1, 2<br>• Almen Ikastola: DBH 3, 4 + 1, 2 Baxillergoa |
| **Banakako galdetegiak**<br><br>• Auzoak<br>bidalitako galdetegiak: 8<br>jasotako galdetegiak: 7<br>• Hezkuntza-ekipamenduak<br>bidalitako galdetegiak: 13<br>jasotako galdetegiak: 11<br>• Jarduera ekonomikoak<br>bidalitako galdetegiak: 163<br>jasotako galdetegiak: 6 |

| CANALES DE PARTICIPACIÓN |
|---|
| **Participación digital**<br><br>14 - 27 febrero<br>www.hapo-aretxabaleta.eus |
| **Sesiones participativas públicas**<br><br>22 de febrero, Sesión general, Arkupe<br><br>24 de febrero, Sesión equipamientos y espacio público, Arkupe |
| **Sesiones participativas con público específico (2 sesiones)**<br><br>• Jóvenes, Lanbide Eskola<br>• Personal municipal |
| **Participación con infancia y adolescencia (6 sesiones)**<br><br>• Kurtzebarri: 1º a 6º de primaria<br>• Kurtzebarri: 1º a 4º de secundaria<br>• Almen Ikastola: 1º y 2º de primaria<br>• Almen Ikastola: 3º, 4º y 5º de primaria<br>• Almen Ikastola: 6º de primaria y 1º y 2º de secundaria<br>• Almen Ikastola: 3º y 4º de secundaria y 1º y 2º de bachiller |
| **Cuestionarios individuales**<br><br>• Barrios<br>cuestionarios enviados: 8<br>cuestionarios recogidos: 7<br>• Equipamientos educativos<br>cuestionarios enviados: 13<br>cuestionarios recogidos: 11<br>• Actividades económicas<br>cuestionarios enviados: 163<br>cuestionarios recogidos: 6 |









Parte hartzeko saio publikoak. Sesiones participativas públicas.



Parte hartzeko saio espezifikoa: lanbide Eskola. Sesión participativa específica: Lanbide Eskola.








Parte hartzeko saio espezifikoa: udal langileak. Sesión participativa específica: personal municipal.





Parte hartzeko saioak ume eta nerabeekin. Sesiones participativas infanto-juveniles.








Parte hartzeko saioak ume eta nerabeekin. Sesiones participativas infanto-juveniles.

## 3.2 KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIO-MATERIALA

Komunikazio-estrategiak bi helburu izan zituen:

- Informatzea, partaidetza informatua bermatzeko.
- Ahalik eta parte-hartzaile gehien eta anitzenak parte hartzera gonbidatzea.

Hurrengo taulan dibulgazio-materiala adieraziko da. Prozesuan erabili den komunikazio-material guztia elebiduna izan da eta, gainera, hizkuntza ez sexista bermatu da, indarreko xedapen eta arauen arabera.

## 3.2 COMUNICACIÓN Y MATERIAL DIVULGATIVO

La estrategia de comunicación tuvo un doble objetivo:

- Informar para garantizar una participación informada.
- Invitar a participar a una mayor cantidad y diversidad de participantes.

La siguiente tabla recoge el material divulgativo. Todo el material de comunicación utilizado en este proceso de participación fue bilingüe, garantizando, a su vez, el adecuado tratamiento del lenguaje no sexista conforme a las disposiciones y normativa vigente.

| DIBULGAZIO-MATERIALA | MATERIAL DIVULGATIVO |
|---|---|
| **HAPOren logoa.** Erraz hauteman daitekeena. | **Logo del PGOU.** Fácilmente reconocible. |
| **Ikonoak:** bat gaika eta parte hartzeko moduka. Erraz hauteman daitezkeenak eta bere kolore berezkoarekin. | **Iconos:** uno por tema y por canal de participación. Fácilmente reconocibles y con su propio color. |
| **Prozesuaren webgunea**, hurrengo orriekin:<br>• **Sarrerako orrialdea edo *landing page***, azken berriekin, **453 bisita aldi honetan.**<br>• **Informazio orrialdea:** Aretxabaletako HAPO zer den, zer arautzen duen eta zein fase dituen. **203 bisita.**<br>• **Edukiak orrialdea:** edukiak gaien eta itemen arabera (edo funtsezko gaien arabera) azalduko dira, herritarrak erraz ulertzeko egokituta egongo dira eta ulermena errazten duten piktogramak erabiliko dira**. 216 bisita.**<br>• **Parte hartzeko orrialdea:** aurrez aurreko kanalei eta kanal digitalei buruzko informazioarekin, saioen egutegiarekin eta parte hartzeko plataforma digitalerako estekarekin. **237 bisita.**<br>• **Parte-hartze digitaleko plataforma:** Parte hartzeko prozesuaren emaitzak plataforma digitalean ere erakutsiko dira, gainerako kanalen modu berean, gaien eta itemen arabera antolatuta, fasearen arabera. **256 parte hartzaile.**<br>• **Berrien eta dokumentazioaren orrialdea:** HAPOren idazketa-prozesuan zehar landutako dokumentuak jasoko dira bertan. **327 bisita.** | **Web del proceso**, con las siguientes páginas:<br>• **Página introductoria o *landing page***, con últimas noticias. **453 visitas en este periodo.**<br>• **Página de información**: con una explicación de qué es el PGOU de Aretxabaleta, qué regula y qué fases tiene. **203 visitas.**<br>• **Página de contenidos**: con una explicación de los contenidos por temas e ítems (o cuestiones clave), ya adaptados para la fácil comprensión de la ciudadanía y con pictogramas que faciliten la comprensión. **216 visitas**<br>• **Página de participación**: con información sobre los canales presenciales y digital, calendario de sesiones y enlace a la plataforma de participación digital. **237 visitas.**<br>• **Plataforma de participación digital**: Los contenidos de participación del proceso se expondrán de igual manera al resto de canales en la plataforma digital, organizados por temas e ítems según la fase del PGOU en la que se esté participando. **256 participantes.**<br>• **Página de noticias y de documentación**: como repositorio de los documentos que se vayan elaborando a lo largo de la redacción del PGOU. **327 visitas.** |

| |
|---|
| **Prentsaurrekoa eta prentsa-oharrak** (2)<br>Hasieran, prentsa-ohar bat. Eta beste prentsa-ohar bat aurreikusten da, bukaeran, emaitzak itzultzeko. |
| **Tokiko komunikabideak:** Goiena, Diario Vasco, |
| **Udal-webgunea eta sare sozialeak**<br>**(FB eta You Tube)** |
| **Informazio-kartela,** prozesuari buruzko informazioarekin, parte hartzeko data eta moduei buruzkoekin ere bai. |
| **Gonbidapen e-mailak**, taldeekin harremanetan jartzeko. |
| **Prozesuaren memoria**, hasierako laburpena barne. Material grafikoa eta idatzia bilduko du, baina oso bisuala izango da. Helburua emaitzak herritarrei bueltan ematea eta zabaltzea izango da. |

| |
|---|
| **Notas de prensa (2)**<br>Nota de prensa al inicio.<br>Se prevé una segunda nota de prensa al final, para devolver resultado. |
| **Medios locales:** Goiena, Diario Vasco |
| **Web municipal y RRSS**<br>**(FB y YouTube)** |
| **Cartel informativo,** con información sobre el proceso, así como fechas y canales de participación. |
| **Mailing de invitación**, para contactar a colectivos específicos**.** |
| **Memoria del proceso,** con un resumen al inicio, con material escrito y gráfico, muy visual, como elemento de devolución y difusión de resultados. |




HAPOren webgunea. Página web del PGOU.



goiena

ARETXABALETA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra zehazteko prozesuaren bigarren fasea abian da

Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren lanketa aurrera doa, eta bi aste iraungo duen bigarren faseari ekin diote gaur. Inkesta bat betetzeko eskatuko diete herritarrei *–online–* eta aurrez aurreko bi saio egingo dituzte.



Aretxabaletako Udala

Ayer a las 10:14

ARETXABALETA.EUS

Hirigintza Planak parte hartzeko bigarren faseari ekingo dio gaur

Galdetegi bat sortu du Udalak eta otsailaren 27ra arte 'online' bete ahal izango da. Gainera, hilaren 22an eta 24an herritarrei zuzendutako bi saio ireki egingo dira. "Nahi dugun Atxabalta" prozesuan planteatutako bederatzi gaietatik...

Me gusta Comentar Compartir

Escribe un comentario...

Pulsa "Intro" para publicar.



Sarrera / Aktualitatea / Hirigintza Planak parte hartzeko bigarren faseari ekingo dio gaur

Hirigintza Planak parte hartzeko bigarren faseari ekingo dio gaur

2022/02/14

*Galdetegi bat sortu du Udalak eta otsailaren 27ra arte 'online' bete ahal izango da. Gainera, hilaren 22an eta 24an herritarrei zuzendutako bi saio ireki egingo dira. "Nahi dugun Atxabalta" prozesuan planteatutako bederatzi gaietatik ekipamenduak eta espazio publikoak izan dira diagnostiko-fasean parte hartu dutenen artean interes eta eztabaida handiena piztu dutenak.*

Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) zehazteko prozesuak bigarren faseari ekingo dio gaurtik aurrera, iazko azaroaren 15etik abenduaren 3ra bitartean gauzatutako saioen ondoren egindako diagnostikotik ateratako alternatibak, irizpideak eta helburuak herritarrekin batera lantzeko helburuarekin.

| | Beharrezkotzat jotzen da eraikin historikoak birgaitzea Aretxabaleta osoan, eta, zehazki, alde zaharrean, Lausitan eta Loramendin. Santa Kurtz, San Migel eta Andra Marin ere bai. | Se considera necesaria la rehabilitación de edificios históricos en general en todo Aretxabaleta, y en concreto en el casco viejo, Lausita y Loramendi. También Santa Kurtz, San Miguel y Andra Mari. |

| | | |
|---|---|---|
| 7 | **Lokalak etxebizitza bihurtzeko aukera ematea beheko solairuan.** | **Permitir reconvertir los locales en planta baja en viviendas.** |
| | Neurri egokitzat jotzen da, oro har, udalerri osorako. Eta zehazki, Durana kalearen atzeko beheko solairuak aipatzen dira.<br><br>Bestalde, gazteen artean proposamen horren aurkako jarrera dago, gazteentzako lokalen beharra dela eta. | Se considera una buena medida en general para todo el municipio. En concreto, se mencionan las plantas bajas de las traseras de la calle Durana.<br><br>Por otro lado, entre la juventud hay cierta oposición a esta propuesta, en cuanto a la necesidad de locales para jóvenes. |
| 8 | **Premia handirik gabe, etxebizitza berriak aurreikustea. Etxebizitza mota, etxebizitza kolektiboa eta gehienbat babestua izango litzateke (soziala eta tasatua).** | **Sin haber una gran necesidad, prever nuevas viviendas. El tipo de vivienda sería vivienda colectiva y mayoritariamente protegida (social y tasada).** |
| | Bizitegi-garapen berrientzako (behar izanez gero) kokagune gisa proposatzen da: Eroskitik Coprecirainoko lursailak, industria-erabilera beste kokaleku batera aldatuz. | Se propone como posible ubicación para nuevos desarrollos residenciales (en caso de ser necesarios): las parcelas desde Eroski hasta Copreci, trasladando el uso industrial a otra ubicación. |
| + | **Proposamen berriak** | **Nuevas propuestas** |
| | Gazteentzako etxebizitza eskuragarrien (alokatzeko edo erosteko) eskaintza handitzea, hirigintza-mekanismoren baten bidez. | Aumentar la oferta de vivienda asequible (ya sea de alquiler o de compra) para las personas jóvenes a través de algún mecanismo urbanístico. |

## 4.5 05. GAIA: JARDUERA EKONOMIKOA

Jarduera ekonomikoaren gaiaren barruan, lehentasun haundien izandako proposamena hurbileko merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea da, tokiko merkataritzaren aniztasuna sustatuz eta ekintzailetza erraztuz. Eta, Zubikua eremuan, aurreikusitakoaz gain, parke bat kokatzea eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu bat integratzea.

Jarraian, gai honi buruzko proposamenak laburbiltzen dira, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta prozesu partehartzailearen emaitzen arabera, eta kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenen sintesiarekin batera.

## 4.5 TEMA 05: ACTIVIDAD ECONÓMICA

Dentro del tema de actividad económica, la propuesta prioritaria es el impulso del comercio y los servicios de proximidad, fomentando la diversidad del comercio local y facilitando el emprendimiento. Y, en la zona de Zubikua, además de lo previsto, introducir un parque e integrar un instituto de secundaria y bachillerato.

Las propuestas de este tema se resumen a continuación en orden de mayor a menor prioridad para quienes participaron en el proceso, junto con la síntesis de las aportaciones de los distintos canales.

| | 05 JARDUERA EKONOMIKOA | 05 ACTIVIDAD ECONÓMICA |
|---|---|---|
| | *Hauek dira Aretxabaletako hirigintza-plan berrirako proposamenak, D denboraldiaren partaidetzaren ondoren (aurreko proposamenak B denboraldiaren partaidetza-diagnostikotik zetozen). Eta, * duten proposamenak egungo Arau Subsidiarioetatik zetozen, arauetan aurreikusitako proposamenak dira, baina oraindik garatu ez direnak.* | *Éstas son las propuestas para el nuevo plan urbanístico de Aretxabaleta, tras la participación del periodo D, cuyas propuestas preliminares venían del diagnóstico participado del periodo B y, las marcadas con asterisco (*) venían de las actuales NNSS; propuestas previstas en las normas pero que no han sido desarrolladas.* |
| **1** | **Hurbileko merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea eta herritarren beharrei egokitu.** | **Impulsar el comercio y los servicios de proximidad.** |
| | Tokiko merkataritza askotarikoa izatea, eta ekintzailetza errazteko politikak. | Se propone que el comercio local sea diverso y se reclaman políticas para facilitar el emprendimiento. |
| **2** | ***Indarrean dagoen planak Zubikuan, industria-erabilerako eraikinetarako 49.220 m2-ko espazio bat aurreikusten du.** | *** El planeamiento vigente prevé un espacio para edificios de uso industrial de 49.220 m2 en Zubikua.** |
| | Alde batetik, gune hau berdegune gisa mantentze, parke bat izateko eta, horrela, eremua naturalizatu ahal izateko.<br><br>Eta, beste alde batetik, hainbat erabilera proposatu ziren, hala nola bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu batentzako hezkuntza-ekipamendua, MUrekin eta institutuarekin lotutako hezkuntza-jarduerak, edo jarduera industrialak, dauden enpresak Eroskitik Coprecira mugituz. | Por un lado, se propone que este espacio se mantenga como zona verde para ser un parque y así poder naturalizar la zona.<br><br>Y, por otro lado, se proponen diferentes usos como: equipamental educativo para ubicar un instituto de secundaria y bachiller, de esparcimiento para desarrollar actividades educativas vinculadas a MU y al instituto, o industrial para trasladar las empresas que hay desde Eroski hasta Copreci. |

| | | |
|---|---|---|
| 3 | **Lehen sektorea (nekazaritza, abeltzantza eta basogintza) bultzatzea.** | **Impulsar el sector primario (agricultura, ganadería y forestal).** |
| | Baserriei lotutako jarduera bultzatzea: Nekazaritza eta basozaintzako lurzorua babestea, Udalak lurzorua eskuratzea ustiapenerako erraztasunak emateko edota "agroaldea" bezalako eremu bat mugatzea. Horrez gain, baserriak birgaitzeko araudian malgutasuna handitzea. | Se propone impulsar la actividad vinculada a los caseríos: proteger el suelo agroforestal, que el Ayuntamiento adquiera suelo para dar facilidades para su explotación y/o delimitar una zona como "agroaldea". También aumentar la flexibilidad en la normativa para poder rehabilitar caseríos. |
| 4 | **Ekintzailetzarako espazioak aurreikustea (topaketakoak, berrikuntzakoak, coworking-ekoak, etab.).** | **Prever espacios para el emprendimiento (de encuentro, innovación, co-working, etc.).** |
| | Lezama merkataritza-gune, Kuartel edo Arkupeko lokalak ekintzailetzarako espazioetarako kokaleku posibletzat jo ziren. | Los locales del centro comercial Lezama, el Cuartel o Arkupe se consideran como posibles ubicaciones para espacios para el emprendimiento. |
| 5 | **Lehentasuna ematea lehen sektorearekin zerikusia duten jarduerei (merkatua, zuzeneko salmenta, etab.).** | **Dar prioridad a las actividades relacionadas con el primer sector (mercado, venta directa etc.).** |
| | Erdigunean tokiko produktuen merkatu baterako gune bat sortzea, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko salerosketa-sare bat sortzeko.<br><br>Era berean, Urkulun parke natural bat sortzea, inguruko animaliak, basoak eta landareak zaintzeko eta sustatzeko, enplegu berriak sortuz. | Crear un espacio para un mercado de productos locales en el centro en que se pueda crear una red de compraventa entre personas productoras y consumidoras.<br><br>También se propone la creación de un parque natural en Urkulu, para el cuidado y la promoción de animales, bosques y plantas de la zona que crearía nuevos empleos. |
| 6 | **Egungo lurzoru industrialaren eta hirugarren sektoreko lurzoruaren kantitateari eustea, eta enplegu kantitate eta aniztasun handiagoa sortzen duten beste jarduera ekonomiko batzuetarako murriztea.** | **Mantener la cantidad actual de suelo industrial y terciario, e incluso reducir para otras actividades económicas que generen una mayor cantidad y diversidad de empleo.** |
| | Tokiko turismo-sektorea bultzatzea proposatzen da, karabanak aparkatzeko espazio baten eta aterpetxe motako ekipamendu-bizitoki baten bidez. | Se propone un impulso al sector turístico de la zona a través de un espacio para el estacionamiento de caravanas y de un alojamiento dotacional del tipo albergue. |

## 4.6 06. GAIA: EKIPAMENDUAK



Ekipamenduen gaia parte-hartze handiena izan zuen gaia izan zen, eta, horren barruan, garrantzi berezia dute hezkuntzako ekipamenduak.

Lehenengo proposamena bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu baterako espazio bat aurreikustea da, kokapen alternatiboekin: Tubos edo Zubikua. Horrela, institutuaren egungo eraikinak udaletxearen erabilera har lezake, Herriko Plazan, Udalaren egungo eraikina ekipamendu soziokultural bilakatuz. Gainera, kiroldegia handitzeko proposamena sortu zen.

Jarraian, gai honi buruzko proposamenak laburbiltzen dira, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta prozesu partehartzailearen emaitzen arabera, eta kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenen sintesiarekin batera.

## 4.6 TEMA 06: EQUIPAMIENTOS



Equipamientos es el tema con mayor participación y, dentro de éste, con especial relevancia los educativos. La propuesta prioritaria es planificar un espacio para un instituto de secundaria y bachillerato, con alternativas de ubicaciones: Tubos o Zubikua. De esa forma, el espacio actual del instituto podría albergar el uso de ayuntamiento, en Herriko Plaza, dejando el edificio actual del Ayuntamiento para equipamiento sociocultural. Además, surge la propuesta de ampliación del polideportivo.

Las propuestas de este tema se resumen a continuación en orden de mayor a menor prioridad para quienes participaron en el proceso, junto con la síntesis de las aportaciones de los distintos canales.

| | 06 EKIPAMENDUAK | 06 EQUIPAMIENTOS |
|---|---|---|
| | *Hauek dira Aretxabaletako hirigintza-plan berrirako proposamenak, D denboraldiaren partaidetzaren ondoren (aurreko proposamenak B denboraldiaren partaidetza-diagnostikotik zetozen).* | *Éstas son las propuestas para el nuevo plan urbanístico de Aretxabaleta, tras la participación del periodo D, cuyas propuestas preliminares venían del diagnóstico participado del periodo B.* |
| **1** | **Hezkuntza-ekipamendu kopuruari eustea eta, hala badagokio, ekipamendu berriak proposatzea.** | **Mantener la cantidad de equipamientos educativos y en su caso proponer nuevos.** |
| | Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko institutu baterako espazio bat proposatu zen.<br><br>Horretarako kokapen posibleak dira: Unibertsitatearen ingurua, Tubos, kuartela, San Martin, Copreciko eta zerrategiko lursailak (bi enpresak Tuboseko eremura eramanez). | Se propone un espacio para un instituto de secundaria y bachiller.<br><br>Se contemplan varias posibles ubicaciones para el mismo: el entorno de la universidad, Tubos, el cuartel, San Martin, las parcelas de Copreci y la serrería (trasladando ambas empresas a la zona de Tubos). |

| | | |
|---|---|---|
| **2** | **Kirol-ekipamendu kopuruari eustea eta, hala badagokio, ekipamendu berriak proposatzea.** | **Mantener la cantidad de equipamientos deportivos y en su caso proponer nuevos.** |
| | Oro har, futbolaz bestelako kirolak praktikatzeko guneak proposatu ziren.<br><br>Lehenik eta behin, estali gabeko igerilekuak edo igerileku naturalak eta, ondoren, patinajerako, parkourrerako, kalisteniarako, eskupilotarako, saskibaloirako, volleyrako, teniserako, padelerako eta kirol anitzeko kantxetarako instalazioak.<br><br>Instalazio horietarako, kiroldegiaren aurreko lorategia proposatzen da nagusiki, baina baita ere honako kokapen hauek ere: frontoia, antzinako skate parkea, Kurtzebarri inguruko berdegunea, unibertsitatearen ingurua eta Tubos.<br><br>Gainera, pilotalekuko instalazioak hobetzea proposatu zen, hala nola aldagelak.<br><br>Azkenik, Arbizelain kirol anitzeko pistak sortzea. (Proposamen honek lotura handia du espazio publikoaren gaiarekin). | En general se proponen espacios para la práctica de deportes alternativos al fútbol.<br><br>En primer lugar, piscinas descubiertas o naturales y después, instalaciones polivalentes para patinaje, parkour, kalistenia, eskupilota, baloncesto, volley, tenis, pádel, canchas multideportivas…<br><br>Para estas instalaciones se propone principalmente el jardín frente al polideportivo, pero también las siguientes posibles ubicaciones: frontón, antiguo skate park, zona verde del entorno de Kurtzebarri, en el entorno de la universidad y en Tubos.<br><br>Además, se propone la mejora de las instalaciones del frontón, como vestuarios.<br><br>Por último, se propone la creación de un pump track en Arbizelai pistas multi-deportivas. (Esta propuesta está más en relación con el tema de espacio público). |
| **3** | **Ekipamendu soziokulturalen kopuruari eustea eta, hala badagokio, ekipamendu berriak proposatzea.** | **Mantener la cantidad de equipamientos socioculturales y en su caso proponer nuevos.** |
| | Gune estaliak elkarteentzat eta jarduera soziokulturalak egin ahal izateko, bereziki haur eta gazteentzat (tailerrak, musika, arteak, dantza, ludoteka…).<br><br>Batez ere kuartelean, komentuan edo Tubosen.<br><br>Era berean, ekipamendu soziokulturalen erabilera sakonago berrikustea eta aztertzea proposatu zen; besteak beste, dantzalekua, antzerkia, gaztelekua, gazteentzako, nerabeentzako eta adinekoentzako lokalak.<br><br>Hileta zibilak egiteko guneak ere eskatu ziren. | Se proponen espacios cubiertos para asociaciones y para poder realizar actividades socioculturales, dirigidas especialmente a infancia y juventud (talleres, música, artes, danza, ludoteca…).<br><br>Principalmente en el Cuartel, en el convento, o en Tubos.<br><br>Se propone también revisar y estudiar en mayor profundidad el uso de los equipamientos socioculturales; su oferta y demanda de actividades como: dantzalekua (espacio para baile), teatro, gaztelekua, locales para ocio juvenil, para adolescentes y para personas mayores.<br><br>Se piden también espacios para celebración de funerales civiles. |

| | | |
|---|---|---|
| **4** | **Udala bere erabileren arabera birgaitzea edo lekuz aldatzea.** | **Rehabilitar el Ayuntamiento de acuerdo con los usos que tiene o trasladarlo de sitio.** |
| | Udalaren erabilera Herriko Plazara eramatea, batez ere, Kurtzebarriko bigarren hezkuntzako eraikinera, nahiz eta beste proposamenen bat ere badagoen Tubosera eramateko.<br><br>Lekualdaketarekin, eraikina birgaitzea eta egungo udaletxearen erabilera ekipamendu soziokultural bihurtzea. | Se propone principalmente el traslado de los usos de Ayuntamiento a la Herriko Plaza, al actual edificio de secundaria de Kurtzebarri,, aunque también hay alguna propuesta alternativa para su traslado a Tubos.<br><br>Con el traslado, se propone su rehabilitación y cambio de uso del edificio actual de ayuntamiento, a equipamiento sociocultural. |
| **5** | **Osasun-ekipamedu kopuruari eustea eta, hala badagokio, ekipamendu berriak proposatzea.** | **Mantener la cantidad de equipamientos sanitarios y en su caso proponer nuevos.** |
| | Anbulatorio berri bat beharrezkoa da, egungoak ematen dituen zerbitzu gehiago emateko.<br><br>Kokapenari dagokionez, erdigunean egotea garratzitsua izango litzateke, eta honako leku posible hauek proposatu ziren: Basotxo, komentua, Tubos edo San Martin. | Se requiere un nuevo ambulatorio que amplie los servicios del actual.<br><br>En cuanto a la ubicación, se considera importante que esté en centro, y se proponen los siguientes posibles lugares: Basotxo, el convento, Tubos o San Martin. |
| **6** | **Laguntza-ekipamenduen kopuruari eustea eta, hala badagokio, ekipamendu berriak proposatzea.** | **Mantener cantidad de equipamientos asistenciales y en su caso proponer nuevos.** |
| | Herritarrei arreta psikologikoa eta psikosoziala emateko guneak aurreikustea, bereziki gazteentzat eta adinekoentzat. Kokapen posiblea: arkupe.<br><br>Eguneko zentro publiko bat egitea ere, komentuan edo hirigunean. Baita tutoretzapeko pisuak ere (ekipamendu-bizitokiak), Basotxo elkarteari emango zaion espaziotik gertu (osasun-zentro berria dela-eta lekuz aldatu ondoren). | Se proponen espacios para la atención psicológica y psicosocial a la ciudadanía, en especial para la juventud y la tercera edad. Como posible ubicación: Arkupe.<br><br>Se solicita también un centro de día público, en el convento o el centro urbano. También pisos tutelados (alojamientos dotacionales), en proximidad del espacio que se destine a la asociación Basotxo (tras el traslado debido al nuevo centro de salud). |

## 4.7 07. GAIA: ONDAREA

Ondarearen gaiari dagokionez, proposamen nagusia hiriguneko eraikinak edota horietako elementuren bat babestea da, kontserbazioaren eta birgaitzearen bitartez, hala nola Udala eta Herriko Plaza. Era berean, Udala Herriko Plazara eramatea proposatu zen (egungo institutuaren eraikinera), egungo Udalak ekipamendu soziokulturaleko erabilera izan dezan.

Jarraian, gai honi buruzko proposamenak laburbiltzen dira, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta prozesu partehartzailearen emaitzen arabera, eta kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenen sintesiarekin batera.

## 4.7 TEMA 07: PATRIMONIO

La propuesta principal sobre patrimonio es proteger edificios en la zona urbana y/o algunos de sus elementos, conservando y rehabilitando algunos en concreto, como el del Ayuntamiento y los de la Herriko Plaza. A su vez, se propone trasladar el Ayuntamiento a la Herriko Plaza (al espacio del instituto actual), de manera que el antiguo Ayuntamiento pueda tener un uso de equipamiento sociocultural.

Las propuestas de este tema se resumen a continuación en orden de mayor a menor prioridad para quienes participaron en el proceso, junto con la síntesis de las aportaciones de los distintos canales.

| | 07 ONDAREA | 07 PATRIMONIO |
|---|---|---|
| | *Hauek dira Aretxabaletako hirigintza-plan berrirako proposamenak, D denboraldiaren partaidetzaren ondoren (aurreko proposamenak B denboraldiaren partaidetza-diagnostikotik zetozen).* | *Éstas son las propuestas para el nuevo plan urbanístico de Aretxabaleta, tras la participación del periodo D (cuyas propuestas preliminares venían del diagnóstico participado del periodo B).* |
| **1** | **Hiriguneko eraikinak eta/edo bertako elementuren bat babestea.** | **Proteger edificios en la zona urbana y/o alguno de sus elementos.** |
| | Hiriguneko eraikinak nabarmentzen dira kontserbatzeko eta birgaitzeko, hala nola Udaletxearen eraikina, Udaletxe Zaharra, Kuartela eta Herriko Plazako eraikinak.<br><br>Udaletxe zaharra, egungo Udaletxea eta Kuartela, erabat birgaitzea proposatu zen, bai eta inguruko espazio publikoa hobetzea eta erabilera aldatzea ere. Udaletxearen kasuan, bulegoak Kurtzebarri institutura eramanez.<br><br>Plazako bizitegi-eraikinei dagokienez, fatxada zaintzea proposatu zen.<br><br>Oro har, alde zaharra babestea, baita Otalora ere. | Destacan para su conservación y rehabilitación edificios del centro urbano, como el edificio del Ayuntamiento, el Ayuntamiento Viejo, el Cuartel, y los edificios de la Herriko Plaza.<br><br>Para el Ayuntamiento viejo, el Ayuntamiento actual y el Cuartel, se propone su rehabilitación integral, así como la mejora del espacio público del entorno y su cambio de uso. En el caso del Ayuntamiento, trasladando las oficinas al edificio del instituto Kurtzebarri.<br><br>Y en cuanto a los edificios residenciales de la plaza, se propone el cuidado de la fachada.<br><br>En general, proteger el casco histórico, también Otalora. |

| 2 | **Landa-eraikinak eta/edo horien elementuren bat babestea.** | **Proteger edificios rurales y/o alguno de sus elementos.** |
|---|---|---|
| | Landa-eremuetako eraikinen azterketa sakona egitea babeserako neurriak hartu baino lehen, eraikin bakoitzaren premia garrantzitsuenak ikusteko eta, horietan oinarrituta, erabakiak hartzeko. Baserririk zaharrenen kasuan, jarraitu beharreko irizpideak argitzea eta, hala badagokio, laguntza ekonomikoak ematea.<br><br>Elementu hauek babestea:<br><br>- Baserriak babesteko araudiak eraikinaren funtsa bermatzea, baina, aldi berean, malgua izatea, egoera txarrean dauden baserrien birgaitzea sustatzeko. Azatzako baserria aipatzen da kontserbatzeko.<br><br>- Hilerriko apaingarriak.<br><br>- Auzo bakoitzeko garbitokiak. | De manera previa a la protección, se plantea un estudio en profundidad de las edificaciones en zonas rurales para ver las necesidades más relevantes de cada una, y en base a ello, tomar decisiones. En los casos de los caseríos de mayor antigüedad, aclarar los criterios a seguir y facilitar, en su caso, ayudas económicas.<br><br>Protección de elementos como:<br><br>- Que la normativa de protección de caseríos garantice la esencia del edificio, pero que al mismo tiempo sea flexible como para promover la rehabilitación de los caseríos que están en mal estado. Se menciona el baserri de Azatza para conservar.<br><br>- Los elementos decorativos del cementerio.<br><br>- Los lavaderos de cada barrio. |
| + | **Proposamen berriak** | **Nuevas propuestas** |
| | • Landa eremuko auzoen arteko bideak berreskuratzea.<br>• Udalaren jabetzako ondarea balorean jartzea.<br>• Energia berriztagarriak integratzeko bete beharreko irizpideak finkatzea, ondareari kalterik egin gabe. | • Recuperar los caminos entre los barrios.<br>• Poner en valor el patrimonio de propiedad municipal.<br>• Establecer criterios obligatorios de integración de energías renovables sin perjuicio del patrimonio. |

## 4.8 08. GAIA: JASANGARRITASUNA ETA KLIMA ALDAKETA

Iraunkortasunari eta klima-aldaketari buruzko lehen proposamena hirigunean azpiegitura berdeak sortzea da. Adibidez, hainbat kokalekuetan hiri-baratzeak kokatuz, eta zuhaitzen kopurua handituz.

Era berean, eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzea, antzinatasun handieneko eraikinen birgaitzea bultzatuz.

Jarraian, gai honi buruzko proposamenak laburbiltzen dira, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta prozesu partehartzailearen emaitzen arabera, eta kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenen sintesiarekin batera.

## 4.8 TEMA 08: SOSTENIBILIDAD Y CAMBIO CLIMÁTICO

La primera propuesta en relación con la sostenibilidad y el cambio climático es crear infraestructuras verdes en la zona urbana. Por ejemplo, mediante huertos urbanos en varias ubicaciones, así como aumentando el arbolado.

A su vez, mejorar la eficiencia energética de los edificios, impulsando la rehabilitación de los edificios de mayor antigüedad.

Las propuestas de este tema se resumen a continuación en orden de mayor a menor prioridad para quienes participaron en el proceso, junto con la síntesis de las aportaciones de los distintos canales.

| | 08 JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA | 08 SOSTENIBILIDAD Y CAMBIO CLIMÁTICO |
|---|---|---|
| | *Hauek dira Aretxabaletako hirigintza-plan berrirako proposamenak, D denboraldiaren partaidetzaren ondoren (aurreko proposamenak B denboraldiaren partaidetza-diagnostikotik zetozen).*<br>*Gai honek, gainera, proposamen berri batzuk ere ditu, hasierako proposamenen osagarri.* | *Éstas son las propuestas para el nuevo plan urbanístico de Aretxabaleta, tras la participación del periodo D (cuyas propuestas preliminares venían del diagnóstico participado del periodo B).*<br>*Este tema, además, incluye nuevas propuestas adicionales a las propuestas preliminares.* |
| **1** | **Azpiegitura berdeak sortzea hirigunean. Besteak beste, hiri baratzeak.** | **Crear infraestructuras verdes en la zona urbana. Entre otros, huertos urbanos.** |
| | Hiri-baratzeak hiri-azpiegitura berde gisa, eta kokaleku gisa honakoak aipatu ziren: San Martin, Tubos, unibertsitatearen atzealdea, Zubikoa, Bañu-etxe...<br>Iraunkortasunarekin lotutako onuraz gain, gizarte-onurak ere dituela uste da, hala nola adinekoen inklusioa eta gazteak landa-munduarekin gehiago lotzea. | Se proponen huertos urbanos como infraestructuras urbanas verdes y se mencionan como posibles ubicaciones San Martin, Tubos, detrás de la universidad, Zubikoa, Bañu-etxe...<br>Además del beneficio relacionado con la sostenibilidad, también se le atribuyen beneficios sociales como la inclusión de la tercera edad y el arraigo con el mundo rural de las personas jóvenes. |

| | | |
|---|---|---|
| 2 | **Klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea bultzatzea. Arintzea, batez ere eraginkortasun energetikoaren eta mugikortasun iraunkorraren bidez. Eta egokitzea, batez ere bero-boladei eta euri-bolada handiei aurre egiteko azpiegitura berdeak sortuz.** | **Impulsar la mitigación y adaptación al cambio climático. La mitigación, principalmente a través de la eficiencia energética y la movilidad sostenible. Y la adaptación, principalmente a través de la creación de infraestructuras verdes para hacer frente a olas de calor y periodos de lluvia intensos.** |
| | Landa-eremuetan zuhaitzak landatuz. Eta adituen jarraibideak betez.<br><br>Era berean, argiteria publikoaren eraginkortasuna hobetu liteke, sentsore adimendunekin eta zuhaitzak kontuan hartuta, zuhaitzek gaueko argiztapena ez oztopatzeko. | A través de la plantación de arbolado en las zonas rurales. Y seguir las indicaciones de las personas expertas.<br><br>A su vez, se podría mejorar la eficiencia del alumbrado público, con sensores inteligentes y teniendo en cuenta el arbolado, que no interfiera con la iluminación nocturna. |
| 3 | **Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea, isolamendu termikoa hobetuz eta energia berriztagarriak sartuz.** | **Mejorar la eficiencia energética de los edificios a través de la mejorar del aislamiento térmico y la inclusión de energías renovables.** |
| | Zahartutako eraikinen birgaitzea bultzatzea (Loramendi, Portasol, San Migel, Santa Kurtz... bezalako eremuetan).<br><br>Era berean, eguzki-plakak, baita eguzki-baratzeak ere, eta Passivehaus kontzeptua sustatzea eraikin berrietan. | Impulsar la rehabilitación de edificios envejecidos (se mencionan zonas como Loramendi, Portasol, San Miguel, santa Kurtz...).<br><br>Asimismo, promover la instalación de placas solares, incluso huertos solares, y el concepto Passivehaus en nuevas edificaciones. |
| + | **Proposamen berriak** | **Nuevas propuestas** |
| | Ibilgailu elektrikoentzako (autoak, patineteak, bizikletak...) zerbitzu-eremuak aurreikustea.<br><br>Era berean, osasunarekin eta airearen kutsadurarekin lotutako proposamenak jaso ziren (lantegien kokapenari buruz) eta hondakinen kudeaketarekin lotutakoak (atez ateko zabor-bilketari eta maskotentzako espazioei buruz). | Se propone prever zonas de servicio para vehículos eléctricos (coches, patinetes, bicicletas...).<br><br>También se recogen propuestas relacionadas con la salud y la contaminación del aire (sobre la ubicación de las fábricas) y relacionadas con la gestión de residuos (sobre la recogida de basuras puerta a puerta y espacios para mascotas). |

## 4.9 09. GAIA: INKLUSIBITATEA ETA OSASUNA



Inklusibitatearen gaiari dagokionez, lehenengo proposamena gaueko segurtasuna hobetzea da, batez ere espazio publikoaren argiztapenaren bidez. Era berean, hiri-eredu inklusibo, trinko eta erabilera-nahasketa baten alde egitea. Zehazki, belaunaldien arteko jarduerak hartuko dituen gizarte-zentro bat aurreikustea, ikastetxe desberdinetako haurrak eta gazteak harremanetan jartzeko espazioak aurreikustea. Osasunari dagokionez, osasuna sustatzea berdeguneen eta aisialdirako espazio naturalen bidez.

Jarraian, gai honi buruzko proposamenak laburbiltzen dira, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta prozesu partehartzailearen emaitzen arabera, eta kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenen sintesiarekin batera.

## 4.9 TEMA 09: INCLUSIVIDAD Y SALUD



Dentro de la inclusividad, la primera propuesta pasa por mejorar la seguridad nocturna, principalmente a través de la iluminación del espacio público. A su vez, apostar por un modelo de ciudad inclusiva, compacta y con mezcla de usos. En concreto, habilitar un centro social que albergue actividades intergeneracionales, y crear espacios de encuentro para poner en relación a la infancia y juventud de los diferentes centros educativos. En cuanto a la salud, impulsar la salud a través de espacios verdes y naturales para el ocio.

Las propuestas de este tema se resumen a continuación en orden de mayor a menor prioridad para quienes participaron en el proceso, junto con la síntesis de las aportaciones de los distintos canales.

| | 09 INKLUSIBITATEA ETA OSASUNA | 09 INCLUSIVIDAD Y SALUD |
|---|---|---|
| | *Hauek dira Aretxabaletako hirigintza-plan berrirako proposamenak, D denboraldiaren partaidetzaren ondoren (aurreko proposamenak B denboraldiaren partaidetza-diagnostikotik zetozen).*<br>*Gai honek, gainera, proposamen berri batzuk ere ditu, hasierako proposamenen osagarri.* | *Éstas son las propuestas para el nuevo plan urbanístico de Aretxabaleta, tras la participación del periodo D (cuyas propuestas preliminares venían del diagnóstico participado del periodo B).*<br>*Este tema, además, incluye nuevas propuestas adicionales a las propuestas preliminares.* |
| **1** | **Eguneko eta gaueko segurtasuna hobetzea udalerrian.** | **Mejorar la seguridad diurna y nocturna en el municipio.** |
| | Segurtasuna hobetzea, batez ere espazio publikoko argiztapena handituz, zehazki, Araba ibilbidean. | Se propone mejorar la seguridad principalmente a través del incremento de iluminación del espacio público, concretamente en Araba ibilbidea. |
| **2** | **Hiri inklusiboaren, trinkoaren eta erabilera-nahasketaren aldeko apustua egitea, herritar guztien (emakumeak, gizonak, haurrak, gazteak, adinekoak, etab.) eguneroko beharrak asetzeko.** | **Apostar por un modelo de ciudad inclusiva, compacta y con mezcla de usos, que satisfaga las necesidades cotidianas de toda su población (mujeres, hombres, niños/as, jóvenes, personas mayores, etc.).** |
| | Belaunaldien arteko jarduerak egiteko gizarte-zentro bat. Era berean, ikastetxe desberdinetako | Se propone un centro social que albergue actividades intergeneracionales. Asimismo, se propone que se creen espacios de encuentro |

| | | |
|---|---|---|
| | haurrak eta gazteak harremanetan jartzeko espazioak aurreikustea.<br><br>Irisgarritasun fisikoa eta integrazioa ere aipagai garrantzitsuak dira.<br><br>Azkenik, herri osoa (hirigunea) lotuko duen bidegorri sare bat egitea, kohesioa lortzeko. | para poner en relación la infancia y juventud de diferentes centros.<br><br>La accesibilidad física y la integración también se mencionan como temas relevantes.<br><br>Por último, se propone un bidegorri que conecte todo el pueblo (el centro urbano) para darle cohesión. |
| **3** | **Osasuna sustatzea, mugikortasun aktiboan arreta berezia jarriz, eta pasealekurako eta kirol-ekipamenduetarako berdeguneak mantenduz.** | **Impulsar la salud, con especial foco en la movilidad activa, y manteniendo los espacios verdes para el paseo y equipamientos deportivos.** |
| | Osasuna bultzatzeko, aisialdirako berdegune eta espazio naturalen aldeko apustua egitea, eta haurrentzako (ur-parkea) eta adinekoentzako (kaleko gimnasioa) espazioak aurreikustea. Adinekoentzat kiroldegiko zelaia, Andramari eta San Martin aipatu ziren kokaleku posible gisa. | Para impulsar la salud se propone apostar por espacios verdes y naturales para el ocio, y se solicitan espacios para infancia (parque de agua) y para la tercera edad (gimnasio al aire libre). Para la tercera edad se mencionan la campa del polideportivo, Andramari y San Martin como posibles ubicaciones. |
| **4** | **Udalerriaren kalitate akustikoa hobetzea. Arreta berezia jarriko zaio trafikoaren zaratari, eta, ondoren, gaueko aisialdikoari eta zaborrak biltzeari. Neurri txikiagoan, industria-jardueraren, obren eta eguneko aisialdiaren zarata.** | **Mejorar la calidad acústica del municipio. Con especial atención al ruido del tráfico, seguido del de ocio nocturno y recogida de basuras. En menor medida, el ruido de la actividad industrial, las obras y del ocio diurno.** |
| | Kalitate akustikoari dagokionez, industria-jarduerarekin lotutako trafikoaren zaratan jarri zen arreta.<br><br>Industrialdeetarako garraio astunaren sarbidea herriaren kanpoaldean mantentzea proposatu zen. Gaueko aisiak sortzen duen zarata ere aipatu zen. | En cuanto a la calidad acústica, se pone la atención en el ruido del tráfico relacionado con la actividad industrial.<br><br>Se propone que el acceso de transporte pesado a zonas industriales se mantenga en la zona periférica del pueblo. También se mencionan el ruido del ocio nocturno. |
| **+** | **Proposamen berriak** | **Nuevas propuestas** |
| | Adinekoentzako bizitoki partekatuak proposatu ziren (co-housing), oinarrizko ekipamendu eta zerbitzuetatik hurbil daudenak, 65 urte baino gehiagoko pertsona independenteentzat, egoitza baino lehenagoko bizitoki gisa.<br><br>Irisgarritasun inklusiboari dagokionez, espaloi batzuen zabalera handitzea proposatu zen, gurpil-aulkiekin, karruekin, patinetekin eta abarrekin mugitu ahal izateko. | Se proponen alojamientos compartidos destinados a la tercera edad (co-housing) con una ubicación cercana a equipamientos y servicios básicos, que sean para personas mayores de 65 años e independientes como alternativa como alojamiento anterior a la residencia.<br><br>En cuanto a una accesibilidad inclusiva, se propone aumentar la anchura de algunas aceras de manera que se garantice la convivencia de sillas de ruedas, carros, patinetes, etc.. |